



AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, ENPLEGUAREN EUSKAL FOROAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO DENA.

Jaurlaritzaren bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko uztailaren 30eko Aginduaren bidez, hasiera eman zaio Enpleguaren Euskal Foroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Araugintza-ekimenaren helburua Enpleguaren Euskal Foroa erregelamendu bidez garatzea da. Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen bidez sortu zen, enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa. Orain arte erregulazio espezifikorik gabe jardun duenez, dekretuaren helburua da arau-esparru argi batez hornitzea, haren eraketa eta funtzionamendu eraginkorra bermatzeko. Erregelamendu horrek ezarriko ditu haren osaera, barne-antolamenduko araubidea, erabakiak hartzeko prozedurak eta erakunde publikoei proposamenak egiteko modua, enpleguaren arloan gobernantza parte-hartzailearen eredua eta elkarriketa soziala indartzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua honako hau dio: *"Xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, dagokion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dagokion testu artikulatuak hasierako agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena izan beharko du".*

Adierazitakoaren arabera, agindu-proiektuaren testua idatzi ondoren, prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuarekin bat etorritik, bidezko izapideen aurretik onartu behar da, eta horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Aldez aurretik onartzea Enpleguaren Euskal Foroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektuaren testua.

BIGARRENA.- Araua egiteko prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, 2025eko otsailaren 28ko hasiera-aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean adierazitako premisekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

MIGUEL TORRES LORENZO

Jaurlaritzako bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua

ENPLEGUAREN EUSKAL FOROAREN DEKRETU-PROIEKTUA (2025/07/10eko bertsioa)

Enpleguaren Euskal Foroa Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen bidez sortu zen enpleguaren gaineko politika publikoetan parte hartzeko.

Orain artean ez du erregulazio zehatzik izan. Dekretu honen bidez arau-esparru argi bat eman nahi zaio, efikaziaz eratu eta funtzionatu dezan.

Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen 83.3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erregelamendu horrek zenbait elementu zehaztuko ditu, hala nola osaera, barne-antolamenduko araubidea, erabakiak hartzeko prozedurak eta erakunde publikoei proposamenak egiteko modua. Helburua enpleguaren arloko gobernantza parte-hartzailearen eredua eta elkarriketa soziala indartzea da.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta 202X(e)ko XXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. Xedea.

Dekretu honen xedea Enpleguaren Euskal Foroaren osaera, araubidea eta funtzionamendua eta kideen hautaketa eta izendapena arautzea da, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 83. eta 84. artikuluek garatuz.

2. artikulua.– Izaera eta araubide juridikoa.

1.- Enpleguaren Euskal Foroa kide anitzeko organo bat da, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18. artikuluan xedatzen diren etako bat, enpleguaren arloan aholku-eginkizunak eta parte hartzeko eginkizunak betetzeko.

2.- Hauek eraentzen dute: Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 83. eta 84. artikuluek, dekretu honek eta, hala badagokio, organoak onartzen duen barne-funtzionamenduko erregelamenduak. Aipatutako arauak xedatzen ez duten guztian, berriz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartekoak eraenduko dute.

3. artikulua.- Atxikipena eta egoitza.

1.- Enpleguaren Euskal Foroa Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloaren eskumena duen sailari adskribatuta geratzen da.

2.- Zer saili adskribatzen zaion, sail horren egoitza bera izango du; hargatik eragotzi gabe egoitza kanpo ohiko bilkurak edo bilkura bereziak egitea, deialdian hala zehazten bada.

4. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Enpleguaren Euskal Foroari dagozkio Enpleguari buruzko abenduaren 21eko

15/2023 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako eginkizunak, arauan agindutako xedera mugatuko direnak, edo esleitzen zaizkion beste edozein, lege xedapenez edo erregelamenduz.

2.- Enpleguaren Euskal Foroaren funtzionamenduaren ondorioetarako, eginkizunak honela sailkatzen dira: informazioa ematekoak, proposamenak egitekoak eta antolamendu-arlokoak.

3.- Informazioa emateko eginkizunak ondoren aipatzen diren arloetan nahitaezko txostenak emateari buruzkoak dira:

- a) Enpleguaren Euskal Estrategiari buruzko txostenak egitea.
- b) Euskadiko hiru urteko enplegu-planari buruzko txostenak egitea.
- c) Enplegurako eta garapenerako toki-planei eta, hala badagokio, enplegurako lurralde planei buruzko txostenak egitea.
- d) Enpleguaren arloko xedapen orokorrei buruzko txostenak egitea.

4.- Proposamenak egiteko eginkizunetan, ondoren aipatzen diren eremuetan proposamenak edo gomendioak egiten dira, legean ezarritako edukia eta ezaugarriak dituztela:

- a) Lan-merkatuaren egoerari eta Europan eta estatuan zehazten eta aplikatzen diren enplegu-politika publikoei buruzko informazioa aztertzea.
- b) Enpleguaren arloko proposamenak eta gomendioak egitea Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari, Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalerriei.

5.- Antolamendu-arloko eginkizunak honako hauek dira:

- a) Funtzionamendu-erregelamendua eta horren aldaketak onartzea.
- b) Lurraldearen araberako lantaldeen eraketa onartzea.
- c) Urteko kudeaketa-memoria onartzea.
- d) Adituen iritzia eskatzea, foroari agindu zaizkion eginkizunak betetzeko.
- e) Antolamendu-arloko beste erabaki-mota batzuk onartzea, haren funtzionamendu-araubideari buruz.

6.- Foroak aukera izango du Eusko Jaurlaritzaren enpleguaren arloko sailak planteatutako proposamenak eztabaidatzeko, haren kidearen iritzia eta ekarpenak biltzea garrantzitsutzat estimatzen bada. Era berean, foroak kideen gutxienez heren batek proposatutako ekimenei heldu ahal izango die, baldin eta Euskadin enpleguari laguntzeko helburua badute, betiere foroak lehendakariak onartu baditu.

5. artikulua.- Osaera eta izendapena.

1.- Enpleguaren Euskal Foroa lehendakari batez, idazkari batez eta hogeita hamazortzi bokalez osatuta dago, honela:

a) lehendakaria, idazkaria eta zortzi bokal Eusko Jaurlaritzakoak izango dira, eta Eusko Jaurlaritzak bermatu beharko du hemen aipatzen diren arloetan eskumena duten sailak ordezkatuta daudela, honela ordezkatuta ere:

- Enplegua: bokal bat.
- Hezkuntza: bokal bat.
- Unibertsitateak: bokal bat.
- Inklusioa: bokal bat.
- Lehiakortasuna: bokal bat.
- SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia: bokal bat.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa: bokal bat.
- Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-, ikerketa- eta berrikuntza-organoa: bokal bat.

Baldin eta sail batek arlo bat baino gehiagoren gaineko eskumenak esleituak baditu, arlo horietako ordezkaritza handituko du, aurreko paragrafoan aipaturiko muga barruan.

- b) Hiru bokal foru-aldundien izenean, bakoitzeko bana.
- c) Hiru bokal udalen izenean.
- d) Lau bokal erakunde sindikalen ordezkari.
- e) Lau bokal Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza zabalena duten sektorearteko enpresa-erakundeen izenean.
- f) Bokal bat Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren izenean.
- g) Bokal bat langile autonomoen izenean.
- h) Hiru bokal enpleguaren arloan aritzen diren Euskadiko hirugarren sektore sozialaren erakundeen izenean.
- i) Hiru bokal Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateen izenean.
- j) Bokal bat garapen-agentzien eta enplegatze-agentzien izenean.
- k) Hiru bokal klusterren izenean.
- l) Hiru bokal prestakuntza-erakundeen eta lanbide-heziketako ikastetxe integratuen izenean.
- m) Bokal bat merkataritza-ganberen izenean.

2.- Titularrek ordezeko bat izan beharko dute izendatuta, karguari datxezkion eginkizunak egin ditzan titularra absente dagoenean edo gaixorik dagoenean, kargua

hutsik dagoenean edo eginkizunak betetzea eragozten duen beste edozein kausa dagoenean. Ordezko gisa jarduten duenak erantzukizun-kargu bat izan beharko du dagokion entitatean, ordezkaritza egoki baliatuko duela eta izendatutako eginkizunak egikaritzen jarraituko duela bermatzeko. Titularrak izendatzearekin batera izendatuko dira ordezkoak.

3.– Kideak izendatzerakoan, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin sustatuko da, ezertan eragotzi gabe karguaren ondorioz kide direnak.

6. artikulua.- Lehendakaritza.

1.- Enplegu-arloaren eskumena duen sailaren titularrari dagokio Enpleguaren Euskal Foroko lehendakaritza.

2.- Kargua hutsik badago edo titularra absente edo gaixorik badago, Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloaren eskumena duen sailburuordea arituko da lehendakari.

3.- Lehendakaritzako titularrak eta haren ordezkoak utzi egin beharko dituzte beren eginkizunak, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 24. eta 29. artikuluetan eta lege hori ordeztzen duen arauan aurreikusitako kasuetan.

4.- Lehendakariari eginkizun hauek dagozkio:

a) Enpleguaren Euskal Foroko ordezkaritza izatea.

b) Ohiko, ezohiko eta berariazko bilkuren deialdia egitea, eta gai-ordena zehaztea.

c) Bilkuretako buru izatea eta eztabaidak moderatzea.

d) Foroaren akordioen aktak eta ziurtagiriak ontzat ematea.

e) Erabakiak hartzerakoan, bere botoaren bidez berdinketak erabakitzea.

f) Bilkura nola egin erabakitzea, soilik aurrez aurre edo urrutitik.

g) Behar diren neurriak hartzea, osoko bilkurak eta batzorde teknikoak behar bezala funtzionatzeko.

h) Lehendakaritzari datxezkion beste eginkizun batzuk edo legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkionak.

7. artikulua.– Idazkaria.

1.- Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloaren eskumena duen zuzendaritzako funtzionario bat izango da Enpleguaren Euskal Foroko idazkari.

2.- Idazkaria eta –kargua hutsik dagoenean edo titularra absente edo gaixorik dagoenean– hura ordeztuko duen funtzionarioa Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloaren eskumena duen sailburuak izendatuko ditu, zuzendaritza hartako titularrak proposatuta.

3.- Idazkaritzako titularrak eta haren ordezkoak beren eginkizunak utzi beharko dituzte baldin eta kargua uzten badute, kargutik kentzen badituzte, lanpostuari uko

egiten badiote, funtzionario-izaera galtzen badute edo 1. apartatuan aipatzen den zuzendaritzako lanpostua utzi beharra dakarren egoeraren bat gertatzen bada; betiere, bat etorri Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak edo haren ordezkio arauak xedatuarekin.

4.- Idazkariari eginkizun hauek dagozkio:

a) Foroaren bilkuretarako deialdia egitea, lehendakariak aginduta, eta kideentzako zitazioak egitea.

b) Foroaren bileretara joatea, hitz egiteko aukerarekin, baina botoa eman gabe.

c) Gaiak prestatzea bidera daitezen; bilkura-aktak idaztea; bilkura-akten fede ematea, eta bilkuretako akordioak, kontsultak eta txostenak ziurtatzea.

d) Kideek organoari egindako komunikazioak jasotzea, izan jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak, nahiz bere ardurapean behar dituen bestelako idazkiak.

e) Foroko jarduketan legezkotasun formala eta materiala zaintzea.

f) Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legediak kide anitzeko organoen idazkaritzari esleitzen dizkion eginkizunak.

g) Idazkaritzari datxezkion beste eginkizun batzuk, edo legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkionak.

8. artikulua.– Bokalak.

1.- Honela izendatuko dira bokalak eta haien ordezkioak:

a) Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak enpleguaren, inklusioaren, hezkuntzaren eta lehiakortasunaren arloetan eskumenak dituzten sailtako buruek izendatuko dituzte, goragoko organoetako titularren artean ahal dela, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko goi-kargudunen artean.

b) Enpresa-Garapenerako Euskal Agentziaren (SPRI) ordezkariak erakundeko zuzendari nagusia eta enpleguaren eta prestakuntzaren arloko zuzendaritzaren titularrak izango dira.

c) Lanbide-Enplegu Zerbitzu Publikoaren ordezkaria erakundeko zuzendari nagusia izango da.

d) Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-, ikerketa- eta berrikuntza-organoaren titularra izango da erakundearen ordezkaria.

e) Foru aldundien ordezkariak enplegu-arloko sail eskudunetan izendatuko dira, eta, ahal bada, goi-mailako organoetako titularren eta goi-kargudunen artean.

f) Udaletakoak EAEko udaletan nagusi den elkarteak izendatu beharko ditu, hautetsien artean, eta ahaleginduko da tamaina bateko eta besteko udalak egon daitezen ordezkatuta.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde sindikal eta sektorearteko enpresaburuen elkarte nabarmenenetako bakoitzak ordezkari bana izendatuko du.

h) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak bere bokala izendatuko du.

i) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten sektorearteko elkarteak izendatuko du autonomoen ordezkaritza.

j) Euskadiko lan-sozietateena Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duen elkarteak izendatuko du.

k) Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko entitate-sareak biltzen dituen elkarteak izendatuko ditu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko entitateenak. Izena emanda eduki beharko dute Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Erroldan, eta autonomia-erkidego osoan jardun beharko dute.

l) Unibertsitateen ordezkaritza euskal unibertsitate-sistemako adierazgarrienek izendatuko dute.

m) Garapen- eta enplegatze-agentzien ordezkaritza Garapen agentzien euskal elkarteak izendatuko du.

n) Klusterrei dagokiena erakunde dinamizatzailerreferenteek izendatuko dute.

o) Prestakuntza-erakundeen eta lanbide-heziketako ikastetxe integratuen ordezkariak autonomia-erkidegoko ikastetxe publiko, pribatu eta itunduen artean ikasle-ehuneko handienak dituztenek izendatuko dituzte.

p) Merkataritza-ganberen ordezkaritza horien elkarteak izendatuko du.

2.- Izendapena lau urterako izango da, eta beste lau urteko aldietarako berritu ahal izango da.

Hala ere, karguagatik izendatzen diren bokalen kasuan, zenbat denbora dirauen kargu-izendapenak, denbora hori iraungo du bokal-izendapenak.

3.- Hauek dira kargua uzteko arrazoiak:

a) Agintaldiaren epea bukatzea.

b) Ordezkatzen duten erakunde, organo edo entitateko kargutik kentzea.

c) Ebazpen —judizial edo administratibo— irmo bat egotea, kargu publikoak betetzeko desgaitasuna edo kargualdi publikoa etetea dakarrena.

4.- Enpleguaren Euskal Foroko bokalei eginkizun hauek dagozkie:

a) Bilkuretara joatea eta bilkurako eztabaidetan parte hartzea.

b) Boto-eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea, eta boto horren esanahia eta arrazoiak azaltzea.

c) Proposamenak, iradokizunak eta galderak egitea.

d) Esleitutako eginkizunak betetzeko behar den informazio eta dokumentazio zehatza eskuratzea.

e) Foroko kide izateagatik datxezkion beste eginkizun guztiak.

9. artikulua.- Funtzionamendua.

1.- ☐ Enpleguaren Euskal Foroak osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean funtzionatuko du.

2.- Enpleguaren Euskal Foroak behar dituen bitartekoak eta baliabideak izango ditu, behar bezala funtziona dezan bermatzeko. Bitarteko eta baliabide horiek Kontseilua adskribatuta dagoen sailak jarriko ditu.

3.- Osoko bilkuretako, batzorde iraunkorreko edo lantaldeetako saioetan izatearren, kideek ez dute eskubiderik izango ordainsaririk, kalte-ordainik edo dietarik jasotzeko.

Apartatu honetan xedatutakoak ez du eragozten idazkariak eskubidea izatea bere zerbitzuagatik kalte-ordainak jasotzeko, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 124. artikuluan edo lege hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako eran.

10. artikulua.- Osoko bilkura.

1.- Lehendakariak, idazkariak eta bokal guztiek eratzen dute osoko bilkura.

2.- Ohiko bilkuran, urtean behin batzartuko da, gutxienez, eta ezohiko bilkuran, berriz, lehendakariak deia egin ondoren, bere ekimenez edo bokal gehienek proposatuta.

Berariazko saioetarako deia ere egin ahal izango da, Enpleguaren Euskal Foroak txostena egin behar duenean prozedura administratiboak tramitatzeko.

3.- Lehendakariak gutxienez hamar egun lehenago egin beharko ditu osoko bilkurako deialdiak; ezohiko bilkuretarako deialdietan, ordea, epea bost egunera laburtu ahal izango da.

Deialdia posta elektroniko bidez bidaliko zaie kontseiluko kide guztiei. Bertan, bileren gai-ordena jasoko da, eta, aurreko paragrafoan aipatzen diren epeetan, gai-ordenan agertzen diren puntuei buruzko informazioa jarriko da haien esku.

4.- Berariazko deialdietan, txostena egin zaion dokumentuaren zirriborroa bidaliko zaie kideei.

Bidaltzen denetik, gutxienez bost eguneko epe bat zabalduko da, kideek beren ekarpenak bidaltzeko eta/edo beren botoa emateko aukera izan dezaten. Horiek organoko idazkariari bidali beharko dizkiote.

Ekarpenak edo botoak bidaltzeko ezarritako epean kideren batek txostena eztabaidatzeko osoko bilkura bat egitea eskatzen badu, idazkariak ezohiko bilkurarako deia egingo du, eskaera hori jasotzen duenetik bost eguneko epean, gehienez ere.

5.- Osoko bilkurara adituak joan ahal izango dira, lehendakariak edo bokalek proposatuta. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

11. artikulua.- Batzorde iraunkorra.

1.- Batzorde iraunkorra Enpleguaren Euskal Foroaren organo betearazlea da, eta bilkuran parte hartzen duten bokalek hautatutako hauek eratuko dute:

a) Lehendakaria, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Idazkaria: 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Hamabi bokal, osoko bilkurak aukeratuak osoko bilkura bera osatzen dutenen artetik, eta banaketa honekin:

1.- Eusko Jaurlaritzako hiru bokal.

2.- Foru-aldundietako bokal bat.

3.- Udaletako bokal bat.

4.- Erakunde sindikalen bokal bat.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak zabalena duten sektorearteko enpresa-erakundeak ordezkatzeko bokal bat.

6.- Bokal bat Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren eta Euskadiko lan-sozietateen izenean.

7.- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko bokal bat.

8.- Bokal bat euskal unibertsitate sistemako unibertsitateen izenean.

9.- Bokal bat tokiko garapen-agentzien eta enplegatze-agentzien izenean.

10.- Bokal bat prestakuntza-erakundeen eta lanbide-heziketako ikastetxe integratuen izenean.

2.- Osoko bilkurak proposatu, eta Enpleguaren Euskal Foroko lehendakariak titularrak izendatuko ditu batzorde iraunkorreko bokalak eta haien ordezkioak.

Ordezkaritza batek bokal bat baino gehiago badu osoko bilkuran, baina batzorde iraunkorren ordezkari bakarra izan behar badu, ordezkari horretako erakundeak ados jarri beharko dira ordezkaria elkarrekin izendatzeko.

3.- Lehendakariak bere ekimenez edo bokal gehienek proposatuta dei egindakoan bilduko da batzorde iraunkorra.

4.- Hauek izango dira batzorde iraunkorraren eginkizunak:

a) Osoko bilkurak prestatzea.

b) Osoko bilkuraren akordioak betetzen direla bermatzea.

- c) Osoko bilkurak agindutako lanak egitea.
- d) Osoko bilkurari jarduketa-ekimenak aurkeztea eta proposatzea.
- e) Lantalderik badago, haiek koordinatzea.
- f) Osoko bilkurak espresuki eskuordetzen dion beste edozein eginkizun.

5.- Batzorde iraunkorrerako deialdiak egiteko, 10. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

12. artikulua.- Eratzea eta erabakiak hartzea.

1.- Behar bezala eratuta egoteko, ezinbestekoa izango da lehendakaria, idazkaria eta hogeita lau bokal bertaratzea, osoko bilkuraren kasuan, eta lehendakaria, idazkaria eta zazpi bokal, batzorde iraunkorraren kasuan.

Asistentzia-quorum nahikoa ez badago, bigarren deialdian bilduko dira, ordu erdi geroago, eta, osaera baliozkoa izateko, nahikoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkioak eta hamabi bokal bertan izatea osoko bilkuraren kasuan, eta lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkioak eta bost bokal izatea batzorde iraunkorraren kasuan.

2.- Baldin eta idazkaria eta osoko bilkurako kide guztiak bilduta badaude –aurrez aurre edo urrutitik–, balio osoz eratu ahal izango dira bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik deia egitea, baldin eta kide guztiek hala erabakitzen badute.

3.- Inoiz ezingo da eztabaidatu edo erabakirik hartu gai-zerrendan sartuta ez dauden gaiak buruz, salbu eta osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko kide guztiak bertan daudenean eta gaia presakotzat jotzen denean kide gehienek aldeko botoa emanda.

4.- Urrutitik egiten diren bilkuretan, osoko bilkuretako edo batzorde iraunkorretako kideak toki batean baino gehiagotan egon daitezke, baldin eta honako hauek bermatzen badira bitarteko elektronikoz (telefonoak zein ikus-entzunezko bitartekoak barne): nor diren kideak edo haien ordezkioak, zein den haien adierazpenen edukia eta noiz egiten diren adierazpen horiek; era berean, bermatu behar da kideen arteko interaktibitatea eta komunikazioa denbora errealean gertatzen direla eta bilkuretan bitartekoak erabilgarri daudela. Besteak beste, posta elektronikoa eta bideokonferentziak sartutzat joko dira.

5.- Berariazko deialdietan, behin ekarpenak jasotzeko eta/edo botoa emateko ezarritako epea amaituta, idazkariak dagokion akta egingo du, bozketaren emaitza eta/edo jasotako ekarpenak jasoz.

6.- Osoko bilkurako kide guztiek boto bana izango dute, idazkariak izan ezik.

7.– Erabakiak bileran dauden boto-eskubidedunen gehiengo soilez hartuko dira, eta lehendakariak kalitateko botoa izango du. Hartutako erabakiekin ados ez dauden bokalek boto partikular arrazoitua eman ahal izango dute, bilera egin eta ondoko 48 orduen barruan. Boto partikular hori erabakien aktari erantsiko zaio.

8.- Erabakiak Enpleguaren Euskal Foroa adskribatuta dagoen saileko egoitzan hartutzat joko dira.

13. artikulua.- Bilkuren aktak.

1.- Idazkariari dagokio bilkura guztietako aktak egitea, lehendakariaren oniritziarekin. Aktak elektronikoki sinatu beharko dituzte kargu horiek betetzen dituztenek.

2.- Akta bitarteko elektronikoen bidez bidaliko zaie osoko bilkurako edo batzorde iraunkorreko kide guztiei, eta haiek bide beretik aditzera eman ahal izango dute testuarekin ados dauden edo eragozpenen bat duten testua onartzeko orduan. Alegaziorik ez badago, bileran bertan joko da onartutzat.

Bilera guztietako aktak bilera-amaieran onartuko dira, edo, bestela, hurrengo bilera hasten denean.

3.- Aktan, honako hauek zehaztuko dira: nor izan diren bilkuran, zein izan den gaitzerrenda, non eta noiz egin den bilkura, zein izan diren eztabaidetako puntu nagusiak eta zein hartutako erabakien edukia.

4.- Egiten diren bilkurak grabatzea edo euskarri elektronikoko agiriak erabiltzea erabakiz gero, fitxategi elektronikoak osoak eta benetakoak direla bermatzeko moduan gorde beharko dira, bai eta osoko bilkurako eta batzorde teknikoko kideentzat eskuragarri egoteko moduan ere.

Aktak eta apartatu honek aipatzen dituen dokumentuak kontserbatzeko orduan, bat etorri beharko da Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalari, Segurtasunaren Eskema Nazionalari eta Eusko Jaurlaritzak dokumentuak kudeatzeko dituen politika eta ereduari jarraituz unean-unean onartutako formatu eta estandarrekin.

14. artikulua.- Lantaldeak.

1.-Osoko bilkuraren erabakiz, lehendakariak lantaldeak eratu ahal izango ditu gaien edo lurraldearen arabera. Lantaldeok bilkurako kideek osatuko dituzte, baita kanpoko adituak ere batzuetan. Egokitzen jotzen diren bezainbeste aditu izendatuko dira, azterlan espezifikoak eta proposamenak egiteko.

2.- Lantaldeen eginkizunak osoko bilkurak edo batzorde iraunkorrak esleitutakoak izango dira. Edonola ere, nor bere eremuaren barruan arduratuko da osoko bilkuran edo batzorde iraunkorrean aurkeztu behar diren proposamenak prestatzeaz.

15. artikulua.- Aholkularitza eta laguntza teknikoa.

1.- Enpleguaren Euskal Foroak, lehendakariaren bitartez, aholkularitza guztiak eskatu ahal izango ditu, enpleguari dagozkion zeinahi arlotan adituak direnen aholkularitza barne, eta bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen datuak eskatu ahal izango dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako edozein organori.

2.- Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloaren eskumena duen sailburuordetzak emango du laguntza tekniko eta administratiborako egitura, hain zuzen ere, Enpleguaren Euskal Foroaren eginkizunetarako eta funtzionamendurako behar dena.

16. artikulua.- Euskararen erabilera.

1.- Enpleguaren Euskal Foroak euskara erabiltzeko aukera bermatuko du, euskararen erabilera normalizatzeko legediarekin bat etorriz.

2.- Nolanahi ere, deialdiak, aktak, oharrak eta ziurtagiriak bi hizkuntzetan idatzi beharko dira.

17. artikulua.- Urteko txostena, publizitatea eta gardentasuna.

1.- Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18.5 artikuluaaren arabera, urtero, Enpleguaren Euskal Foroaren kudeaketa-memoria bat idatzi behar da, osoko bilkuran onartuko dena, eta horren berri jendaurrean emango da, Eusko Jaurlaritzaren Gardena gardentasun-atariaren bidez.

2.- Gardentasun-atari horren bidez, foroaren, osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren osaera argitaratuko da.

Horiek hartzen dituzten erabakiak eta bileren aktak ere argitaratuko dira.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.– Izendapenak.

1.- Dekretu hau indarrean jartzen denetik bi hilabete igaro baino lehen, Enpleguaren Euskal Foroko kideak izendatu behar dira.

2.- Lehendakariak batzorde iraunkorreko bokalak izendatuko ditu lehen osoko bilkuran proposamena onartu eta hura amaitu ondoren.

Horretarako, lehengo osoko bilkurako gai-zerrendan jasoko da batzorde iraunkorreko izendapenak egiteko proposamena.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko XXaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.